



Azalpen Orria

2012-07-11



IKI IKASTAROA

Gaur uztailak 10, HEAAn, 134. zenbakia, argitaratu da Ikerketa Kriminaleko Ikastaroa egiteko hautaketa frogarako deialdia.

ELA sindikatutik Herrizaingo Sailak jarraitu duen prozedura salatu nahi dugu, izan ere, Uztailaren 5 eta 9an GGBB-tako Zuzendariari eta Sailburuari gutun bidez deialdia geldiarazteko egindako eskaerei entzungor egin diete.

Horretarako arrazoi nahikoa baino gehiago daude, lehenengo eta behin, lege ezarritakoa urratzen delako: ikastaroa Kontseilu Artezkarian ez delako aurkeztu, ezta, LZri nola eragiten dion eztabaidatzeko 103 mahaia deitua izan. Eta bigarren lekuan, opor garaian deia egin delako, abuztuaren 3rarteko epearekin, kontuan izan da Gurenet bidez soilik eska daitekela.

Ertzaintzari eta bere ordezkariari egindako mespretxua da. Gaiari buruz eta argitaratu denari buruz dagoen informazio gabezia onartezina da. Ondoren aipatzen diren puntuetan erabateko ziurgabetasuna sortzen du:

- Ikastaroa egiten duenak IKI baldintza duen lan-postua eskatu beharko du ala ez: zein dira lan-postu horiek? Zein BOS esleitua dute? Zein da lan-postuan betebeharreko gutxiengo aldia? Zein izango dira lan-postu horien zereginak?...
- Praktiketara diren Agente lehen eta Ofizialei deialdian parte hartzen uzten die, betiere, maila horientzat deituta dauden lan-postuentzat, baina izendatuak ez badira IKI-rako hautaketa prozeduratik kanporatuak izango dira.

Hau da Ares Jn-ak eta bere taldeak Ertzaintza modernizatzeko aukeratu duten bidea: etengabeko lardaska, eta esan dut eta agintzen dut.